

## Mondragon taldeak berri du, erabat, webgunea

2009/10/30

Mondragon taldeak erabat berri du bere webgunea. Eguneratzea izan da Mondragon 2.0 hausnarketaren lehen ondorioetariko bat, ikusgarriena seguruenik, eta helburua izan du korporazioak Interneten duen plataforma egokitzea garai aldakor hauetara. Aldaketa hau iritsi da taldeak bere irudi korporatiboa aldatu eta ia bi urtera.



### Aldaketa sakona

Mondragon taldearen webgune berriak aldaketa asko eta sakonak dakartza, berariaz baliatzen ditu-eta Web 2.0 aldiak ekarri dituen erremintak:

- **Helbidea:** aurrerantzean izango da [www.mondragon-corporation.com](http://www.mondragon-corporation.com)
- **RSS:** bertako edukietara harpidetzeko.
- **Bloga:** erabiltzaileen iritzia-eta jasotzeko.
- **Sare sozialak:** aukera eskaintzen du bertatik zenbait sare sozialetan eragiteko, hala nola facebook, twitter, del.icio.us, linkedin, digg, menéame, etab.
- **Hizkuntzak:** bost hizkuntzatan dator: gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez.
- **Itxura:** bat dator korporazioaren irudi berriarekin, koloretan, letratipoetan eta diseinuan.

Webgune berriak tankera garbia du, erraza da nabigatzeko, eta hiru albiste eskaintzen ditu beti azalean. Iradokizunik egin nahi duen guztiak irekita ditu ateak webgune blogean.